

Mariasun Landa, idazlea

«Gustuko dudan bizimodu paraleloarekin jarraitzen dut»

Donostia

Kultura

Erretiroa hartu zuenetik, batetik bestera dabil Mariasun Landa (Errenteria, Gipuzkoa, 1949). Asken boladan, hitzaldiak eta literatur tailerrak tartekatzen ari da. Une honetan, EHUko udako ikastaroetan dabil idazketa literarioa sustatzen eta irakasten. Horrekin batera, estimatzen dituen bi liburu berrargitaratu ditu Erein argitaletxearekin: 'Elsa eta paradisua' eta 'Marlene eta taxizapata'.

Mariasun Landa. (Argazkia: Joseba Parron San Sebastian)

2023/07/07

Inaxio Etxaola

Errenteriarra bazara ere, Donostian bizi zara. Noiztik?

Hiru urte nituenean, nire gurasoekin eta bi anaiekin Errenteria utzi eta Ordiziara joan ginen bizitzera. Handik Bergarara mugitu ginen, eta, ondoren, Pasaiara. Azkenik, Donostiara etorri ginen bizitzera. Zehazki, Gros auzora. Orduan 14 urte nituen. Nire anaiekiko beti brometan esaten du diplomatikoen seme-alabak ematen genuela. Ordea, ez da horrela. Nire aita bankoen bateko langilea zen, eta sukurtsal batetik bestera mugitzen zuten. Askenean, esan moduan, Grosen bizitzen jarri ginen.

Gaztea nintzela, Donostia utzi nuen Parisen Filosofia ikasketak egiteko. Han lau urte eman nituen, eta bukatzean itzuli nintzen Donostiara. Eta ikusi nuen 1973an Amara auzora joan ginen bizitzera. Dena dela, duela hogei bat urte Grosera bueltatu nintzen, gurasoak zaindu ahal izateko. Biak hil ziren, baina nik hemen bizitzen jarraitzea erabaki nuen. Donostian bizi arren, oso harro nago errenteriarra izateaz. Ama eta nire osaba oso errenteriarrak ziren.

Omenaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak. Ez zabiltza geldirik azken aste eta hilabeetoetan.

Argi neukan erretiroa hartzean soilik laborala izango zela. Pentsioduna naiz, baina saiatzen ari naiz jubilatu aurreko bizimodu berarekin jarraitzen. Batez ere, alderdi publikoa eta soziala. Idazle gisa hitzaldiak emateko asko gustatzen zait, orainditik eman dizkadelako.

Akitbo egon behar dugu. Zergatik adinarekin pasibo bihurtu? Soilik osasunak agintzen du. Osasunez ondo ez baazude, akabo. Bitartean, aurrera. Batzuek behar izaten dute bizimodu berri bat hasteza erretiroa hartaean. Gustuko dudan bizimodu paraleloarekin jarraitzen dut; irakaskuntzarekin eta idazketarekin. Biak asko estimatzen ditut, eta biak dira bateragarriak.

Orain ikastaroak eta hitzaldiak ematen jarraitu nahi dut, tranpolino hori ezinbestekoa delako. Laguntek esaten didate horrenbeste hitzaldi eman behar nuenean gehiegi idatzi behar nukeela. Haleta, niri gehiago gustatzen zait jendearrenan aritzea. Hitzaldiak eta ikastaroak prestatzea eta ematea errazagoa da niretzat. Gainera, berehalakoa da jasotzen duzun erantzuna eta emaitza. Idazketarekin, berriz, sentsazio hori lortzea askoz ere zailagoa da, denbora gehiago behar delako. Idatzeari komentua deitzen diot. Aiken batean, komentuan sartu behar zarelako idazketa prozesua aurrera eramateko.

Mariasun Landa idazlea EHUren udako ikastaroetako Harriber parajean. (Argazkia: Joseba Parron San Sebastian)

'Idazketa literarioaren abentura' literatur tailerra eskaintzen ari zara EHUren udako ikastaroetan. Nolakoa da abentura hori?

Esperimentala. Pinturan esperimentazioen den moduan kolorerekin, literaturan ere posible da irudimenarekin. Idazketarekin esperimentazioa da helburua. Betidanik garrantzia eman diogu testuen azterketari. Aldiz, niretzako ezinbestekoa da idaztea eta irakurtzea. Biak erabat lotuta daude. Testu batzuk irakurriko ditugu, horietan sakondudo dugu, ondo pasatuko dugu, eta, ondoren, testuak sortzen saiatuko gara.

Irakaskuntzan urte asko ibilitakoa naiz, eta ikasle bati ezin diozu ekusaiz udaberriaz idatzeko, adibidez. Hori egiten zidaten nri txiktan. Horretako arikeiak gorroto nituen. Eoin Jaio ikasleari bukarrik utzi, larritasun horrekin, bakartuta. Egokiagoa iruditzen zait testu bat ematea, komentatzea, ideiak sortu eta lantzea, eta, jarraian, idaztea. Metodologia honekin irudtizen zait nire ikastaroetako ikasleak ez direla aspertzen.

Irakurtzeko hautatu dituzun testuetatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Bi aipatuko ditut. Batetik, obra klasiko bat aukeratu dut; Inazio Mujika Iraolaren *Asukre Belauretan* narrazio bilduma. Zehazki, *Regina* izuna da ikasleekin aztertu nahi dudana. Bestetik, Miriam Lukik aurten argitaratu duen *Argialdiak* liburua erabiliko dut. Gustuko dut gure literatura klasikoa era berrietan ustartzea.

Zure ikastaroen oinarrietako bat da ondorengoa: «Irakurri hobeto idatzteko, eta idatzi arreta handiagoz irakurtzeko». Idaztea irakurtzea bezain garrantzitsua da?

Nire ikastaroetan ikasleetari garrantzia gehiago ematen dizet. Nire ikastaroetara datorrenra irakurria eta ondo hornituta datoz. Irudtizen zait idaztekoarena motz geratu den aldierdia dela. Nire ikasleen irudimena piztea eta zirikatzea da nire asmoa. Askok uste dute ez dutela irudimenik, istorioak asmatzeko gaitasunik. Hori zirikatu egin behar da piska bat, gaitasun hori baden jakiteko. Horren ondoren, esperimentazioa da garrantzitsuena. Batzuk kontrakoarekin dira oso bainn errazago ateratzen zaizkiela istorioak. Egia esan, izan ditudan ikaste batzuek serio samar hartu dute idazketarena, eta aurrera egin dute. Horrek asko pozten nau, nire helburuetako bat delako.

Sari eta aipamen berezi asko jaso dituzu zure ibilibidean. Azkena martxoan jaso zenuen, Azkoitia Geure Gelatik emakumeen liburu azokan. Pozik zaude egin zizuten omenaldiarekin?

Oso eskertua nago. Nik uste dut azokaren antolatzaileek asmatu egin dutela emakumeen literaturari eskaintako espazio horekin. Hasiera batean, beteranoak joango gara, atsoak ez esatearen [barre], eta gero etorriko dira bestalde. Antolatzaileek ez zuten argi asokarekin jarraitzea zuten ala ez, baina nik aurrera egin dezan eskatzeko diskurtsoa eman nuen.

Nire ibilbideari aitortza egin izana asko eskertzen dut, baina nahiago dut ni katebegi modukoi bat izatea eurrenetik, azokak jarraipena izan dezan. Era berean, polita izan zen Arantxa Urretabizkaiaren eskuetatik jasotzea saria.

Omenaldiaz gain, zuk teuk ere parte hartu zenuen azokan Annie Ernaux Nobel saridunaren inguruko hitzaldi batekin.

Gutxi batzuk jabetu dira iazko Literatura Nobel saridunaren bost liburu ditugula euskarara itzulita. Batzuetan esaten dugu gure literaturaren egoera ez dela ona, eta botila erdi hustuik ikusteko joera dugu. Batzuetan, ordea, esan behar dugu botila bete samarra dagoela. Ez da ohikoa Literaturako Nobel saridun baten hiorrenbeste libururen euskarazko itzulpenak izatea. Ez dakit errazeerreplikatuko ote den.

Annie Ernaux ezagutzen genuenok logia moduko bat osatzen dugu. Ez da Isabel Allende bezain unibertsala, baina guretzat ezaguna zen. Kobo gaia eman zidetenean. Poz hori adierazteko, gogoan dut Katalin Miniererk zutabe polit bat argitaratu zuela. Gutarra dela zioen, gure autoretzako bat sartu zutela sentitu genuelako. Hori dela eta, Emauxen inguruko hitzaldi bat prestatzea erabaki nuen. Itzultzaileo liburuak zeintzuk diren eta dituzten esanguratsuenak azpimarratzen dituz.

Geure Gelatik azokarako prestatu nuen hitzaldia, saria jasotzeaz gain, zerbait gehiago eskainti behar nuelako. Errenteriako Emakumeen Etxean, Mondragon Unibertsitatean eta Donostiako Liburutegi Nagusian.



Mariasun Landak Arantxa Urretabizkaiarekin eskuetatik jaso zuen Geure Gelatik azokaren saria. (Argazkia: Maiaazkoro)

Aurten bi liburu berrargitaratu dituzu Erein argitaletxearen bidez: 'Elsa eta Paradisua' eta 'Marlene eta Taxizapata'. Lehena 2015ean plazaratu zenuen, eta bigarrena 2002an. Zergatik berreskuratu dituzu bi lan hauek?

Idatzi bat eta gero berrantzitsua da liburuak errekuperatzea, batez ere, hauek hiltzear daudenean. Bi liburu hauek dagoeneko desktalatigatuta daude. Kanpoko argitaletxeek kaleratu zituzten, eta eurentzat euskaraz argitaratzea sinbolikoa denez, desagertzeko zorian zeuden. Euskal Herriko argitaletxeetan, berriz, liburuak ez dira desktalatigatzen, edo ez dizute abisatzen, ez zaielako konturatzen [barre]. Bi liburu hauek nire kutunetxakoak dira. Batez ere, *Elsa eta Paradisua*. Oso pozik nago Erenek berrargitaratzeu disuelako.

Eta zergatik dira zure kutunak?

Elsa eta Paradisua liburuak nirizkoena berezia den bat gai jorratzen du: paradisua. Utopia eta paradisua antzekoak dira, eta horren inguruko lana da. Haur eta gazteei zuzendurikoa den arren, hausnarketa sakon bat du. Batez ere, errefrentzia ugari tartekatzen dituelako; Adam eta Eva, Abel eta Kain, fantasia eta umorea, eta abar. Elsa da protagonista, eta paradisua zer den jakin nahi du. Inork ez dio erantzuten, baina dama batek azalduko dio.

Marlene eta Taxizapata oso bestelakoa da. Jolas bat da. Marlene katemeak nire izaugarri batzuk ditu, eta mundu dekadente batean kokatu dut. Vedettea izandakoa da katemea, eta Marlene Dietrich aktoreari egindako keinu gisa har dailelke. Dibertimendu bat da.

Beste lanik berreskuratzeko asmoa duzu?

Bada, bai. Elefante txori-bihotza haurrentzako liburua berrargitaratuko du orain Erein argitaletxeak. Anaiyk argitaratu zuen, baina argitaletxea desagertzear denez, berreskuratuko dute. Niretzat opari bat da lan hori ere berrargitaratzea. Sekulako arrakasta izan du gaztelaniaz.

'Azken balada' (Erein, 2016) da orain arte plazaratu duzun azken liburua. Zuk aipatu duzun komentuan, idazketaren txokoan, bazabiltza idazten?

Orain ez naiz idazten ari. Bi edo hiru lan ditut hasita, baina narrazioekin nekatu egiten zara batzuetan, nekea sorteen didatelako. Zaharra egiten zaizkizu barruan, zeure batean. Hori gutxi-arte denbora pasatu behar da. Tartean, beste gauza batzuk sortzen dira, eta egunen batean berartsuko dut lan horeen idazketako prozesua. Ez zait idazketa behartzea gustatzen. Gai bat sortzen da inori ez diozula ezer demostratu behar. Dudan adinarekin askatasun hori sentitzen dut idazle gisa.

Euskarazko haur eta gazte literaturaren errreferentzea zarela dioten bakoitzean zer pentsatzen duzu?

Hala iruditzen zait niri ere. Ez nuke esango bainan nazkeria. Beharbada hemendik kanpo, bai. Euskal Herrian motz geratzen zait hori, badaudelako beste batzuk errreferentziat har daitezkeenak. Kanpoan nik bete dut euskarazko haur eta gazte literaturaren lekua.

Zure liburu asko itzuli dituzte 20 hizkuntza baino gehiagotara. Euskarazko haur eta gazte literaturan zu zara gehien itzuli duten idazlea?

Hori esaten dute, baina ez zait gehiegi axola. Ez dakit dakit 20 hizkuntza edo gehiago diren. Kopurua ez dakit. Umilak izan behar gara, edozo horiek oso ahulak izaten direlako. Pentsa, bestalde, zenbat badago nire lan baten itzulpena, eta ez daukat horren alerik. Pena ematen dit horrek.

Eta zein da txineraz irakur daitekeen zure liburua?

Igurtzagiak paradisuan. Gazteleraniatik itzuli zuten txinatarrek, hori zelako gehien interesatu zitzaiena. Gu Txinari begira gaude, eta badirudi berarek ere guri begira daudela. Liburu hori *Elsa eta Paradisua* lanarekin batera idatzi nuen. Garai hartan, paradisuarekiko bualtzia nenbilen, eta, berriz ere, paradisuan kokatu nituen protagonistak. Adam eta Eva agerten dira, animaliak, eta, berezki, igurtzagia.

«Nik uste dut ez dudala bailo gauza askotarako. Soilik idazten eta istorioak kontatzen dakit». Horiez aditerazi zenuen duela gutxi emandako elkarrizketa batean.

Eskolan, asko sufritzen nuen matematikekin. Halere, Batxilergoa ikasi nuen, eta Filosofia frantses hutsean egin nuen Parisen. Askarra izan nuzela arg dago. Ordea, eskulanak egiteko ahleziarik ez dut, eta beste gauza askotarako gaitasunik eta ere. Aldiz, istoriook asmatzeko eta irudimena lantzeko bailo izan dut betidanik. Orain, adinem artifizialarekin ez dakit eer gertatuko den.

Haur eta gazte literaturako hainbat egile eta obra jomugan jarri dituzte hizkera desegokia darabiltzeako. Esaterako, Roald Dahl idazle galestarraren hainbat lan berrikusiko dituztelako. Zer iruditzen zaizu?

Ez da oraingo kontua, zentzura berdatoko eran delako. Hari dagokio. Haur eta literaturan, hasieratik, helduek eskua sartu nahi izan dute istorioetan. Carlo Collodi idazleari *Giannetto* obrako haur eredugarrirarren antzeko liburu bat idatzea enkargatu zioten. *Giannetto* liburuaren antzekoak dira euskarazko *Aiberto* eta gaztelaniazko *Juanito*. Ordea, Collodiek oso bestelako liburua argitaratu zuen: *Le avventure di Pinocchio* (1883). Sekulako irudimena zuen, eta haur eredugarrirarren kontrako istorioa aurkeztu zuen. Pentsa, Pinocchiok bostongolingaen kontzientzia edo kalteak hasten zaizenean, hormaren kontra bota eta hil egiten da. Walt Disneyk, ordea, animazioko filma egin zuenean kilkerra istorioaren bukaerarako inserzatu du. Collodiren klasikoa zeharo-edulkoratu zuen. Horrekin esan nahi dudana da zuzentasuna bermatzearena aspaldiko kontua dela.

Parte hartu zuen duzun kongresuetan gai honi buruz hitz egin izan dut. Pentsatzen dudana da obrak errespetatu egin behar direla jatorrian idatzi ziren modukan. Hori bai, kalteak eta bestelako obrak bereziko nituke. Carlo Collodiren *Pinnochio* klasikoatat jotzen dudan modu bereran, Roald Dahlen literatura ere den moduan mantendudo nuke.

Zure liburu edo ipuinen bat berrikusi behar izan duzu?

Ez, baina zentsura zer den ezagutu dut. *Ihoild* ria nire liburu literarioena, eta zigarroak goraipatzen ditu. Hori ez da honen zuzena egun. Baten bati okurritu ahal zaio hori aldatu behar dela.

Errusiila lanak ere badu berea. Arkaikuso bat da protagonista eta garagardotegi bateaan sartzen. Alfbetan arazoak izan nituen liburu horren itzulpenarekin, tabernak ez direlako aipatu behar haur eta gazte literaturan. Horrela ere, jatorrizko bertsioa mantentzea lortu nuen.

Egungo euskarazko haur eta gazte literaturari erreparatzen diozu?

Egia esan, ez. Denbora faltagatik, batez ere. Zer irakurri aukeratu behar da, eta bizitza laburra da. Lagun batena eta norbaitek gomendatsua bada, orduan bai irakurtzen dudala. Egia esan, literaturigintza oso zabala da, eta ez dut genreoetan bereizten. Gaur egun, era guztietako literaturarekin eta zinemarekin elkartuen naiz.



Azken 7 egunetako irakurrienak

1

Buff Dj-a, zoziketak eta pintxoak Izarra dira L Txirrita mendi lasterketaren ostean

2024/07/01 Donostia

2

'Negu Hurbiltak' filma Lizarraldeko zinematxiko sail ofizialean estreinatuko da

2024/07/01 Donostia

HIRUTXULOKO HITZA

Donostiako azken berrien buletina

Donostiako azken berriak bitzen ditu hiru egunean behin.
Astelehen, astearten eta ostiraletan iristen zaizu posta elektronikora.

Izen-abizenak *

Posta elektronikoa *

Pribatutasun Politika irakurri eta onartzen dut.

Harpidetu

Zure babesa behar dugu Donostia den hometan aztertzen eta kontatzen jarraitzeko.

HITZAREN ALDEKO HITZA